

Aurre oharra: Akta hau bilkuratik hiru egunetara egin da, Erakundeak bilkurara eramandako gai ordena oinarri eta

bilkuran aktarik ez zela hartu kontuan hartuta. Beraz bere edukia maila batean ez da osoa.

Aurrekariak:

– Erakunde Hostoarekin harreman hari iraunkorra mantendu zuen 98ko ekimenaren bitartean eta aurretik.

– Orduztik harreman zuzen bakarra egon da, 2005eko hasieran. Orduan bilkura bat burutu zen. Garaiko presidentea eta oraingo bigarren ordezkaria egon ziren. Bilkura eta ez zitzaion harremanari jarraipenik eman, Hostoak Erakundeari eginiko kritika publiko batzuei gutunez erantzun ondoren.

Sarrera:

– Bilkura jatetxe batean burutu da Euskal Herrian. Bilkura giro lasai batean garatzen da eta ez da 4 ordutara

iristen. Bilkura euskaraz burutzen da nahiz-eta Hostoaren mintzakide batek gaztelaniaz mintzatu (euskaraz ulertzen du).

– Hostoaren aldetik harremana berrartzeko arrazoiak azaltzen dira. Ez oso argi. Hauteskunde autonomikoetan Ezker Abertzalearekin izandako harremanen baitan kokatzen dute. Bai eta euskal herriak ikuspegi independentista batetik bizi duen egoerak sortzen duen kezkatik: Espainolismoa gero eta errotuagoa, soberanismoa PNVek burutu nahi duen operazioarekin gero eta diluituagoa eta dispersatuagoa.

– Erakundearen aldetik bilkurarako interesa azaltzen da:

– Lehenik beraien aldetik harremana hartzeko arrazoiak entzun nahi genituela. Jarrera interesgarria dela edonola baloratzen da.

– Erakundearentzat Hostoa -Euskal Herria aintzat hartzen duten eragileen esparruan egonik- bere harreman eremuan lehentasunez kokatzen duela.

– Erakundeak bilkura honetan Hostoaren hausnarketa politikoa lehen eskutik jaso eta Erakundearena era berean eskaini nahi luke. Erakundeak bilkuran aztertu nahi lituzkeen gaiak azaltzen ditu; Euskal Herriaren egoera, PNVren posizioa, Earen azken 10 urtetako ibilbidea, Hauteskunde autonomikoak, Hauteskunde europearrak, beste zenbait.

Euskal Herriko egoeraren azterketa:

– Hostoaren aldetik egoeraren azterketa azkar bat egiten da. Esposaketa honetan independentismoa edo Euskal Herria beste eskenatoki batetara eraman nahi dugunok baldintza gero eta zailagoetan kokatzen garela azaltzen du: Ezker Abertzalearen ilegalizazioa, horrek Gasteizeko parlamentuan edukiko duen eragina, indarrak dispersatuak, PNVek espainolismoarekin burutu nahi duen paktoa...

– Erakundeak zentzu horretan eskaintzen den azterketarekin adostasuna azaltzen du. Dauden baldintza politikoak egonda ere, egun autodeterminazioaren indarrak sufritzen duten dispersioa argazki politikoan oso lausoturik agertzearen dira eta ondorioz, indar korrelazioaren de facto aldaketa eragiten dute. Argazki hori aldagai horrengatik baldintzatua agertzen da baina bai eta ere:

– Aldaketa politiko bat klabe batean edo bestean emateko baldintzetan gaudelako, Euskal Herria krisian.

– Estatuen apustua: Euskal Herria aintzat hartuko ez duen erreforma bat egitearen aldeko posizioan, apustu errepresiboa horri loturik agertzen zaigularik.

– PNVren posizioa: Aukera politikoak erreforma batera mugatzeko egiten duen apustuarengatik.

– E: LBNZan abertzaleek burutzen ari diren harreman eta batera jotzea eredu politiko bat dela deritzogu. Zentzu horretan Euskal Herria Bai urrats politiko oso positiboa iruditzen zaigu, horrek abertzaletasunaren benetako indarra erakusteko tresna bilakatu delako.

PNVren posizioa:

– E: Egoera politikoak duen potentziala oso handia izanik, arriskuak ere horrekiko proportzionalak agertzen

zaizkigu PNVek egin nahi duen apustuarengatik gehien bat.

– E: Estatuto berri bat egiteak, gatazka betikotzeko aukera nagusitzen du.

– E: Ez dago Egibarren, Ibarretxe, Imaz edo Urkulluren PNVrik. PNV bakarra da, ukaezina den arren PNVren bi

tendentzia historikoen azken hamarkadan sufritu duten talka. Talka hori krisi batean bilakatu zen zeinak publikotasunaren marrak iragaten zituen eta horrek kalte handia eragin die. Egun krisia edo barne tentsioak eremu publikora ez iragateko helburua lortu dute. Ikuspegi historiko batetik PNV beti Euskal Herriko interesak baztertzen ditu alderdi modura dituenak gailenduz.

– E: PNVren posizioa eta apustuaren aurrean:

– Burutzen ari den zia boga politikoaren aurrean brankatik behera bozkak galtzeko apustua egin behar da alternatiba abertzaleen aldetik.

– Estatuto berri baten aurrean indarrak lerrotatu eta posizio irmo baten ondorioz apustu hori saihestu edo epe motzeko adabaki ahul baten modura jaiotzeko mugimendua eman behar da.

– Ikuspegi estrategiko batetik, herri bezala PNVren hegemonia apurtzeko eta estatuarekiko interlokuzioan ordezkatzeko apustua egin behar da.

– PNV, 30 urte ondoren, zikloa errepikatzeagatik, gatazka betikotzeko apustua egiten badu, estatuto berri bateko urratsean kokatzen badu herri hau, herri honek ez du traizio berri hori onartuko. ETAK PNVrekiko posizioa berrituko du eta gatazkaren berrekitean duen arduraz erantzungo dio Erakundeak.

– E: Negoziazio Prozesuan emaniko harreman trilateraletan PSOeko ordezkariak baina beldur eta oztopo gehiago erakutsi zituzten Euskal Herria beste marku batetara eramateko proposamenen aurrean.

– E: Azken urteetan buruturiko inoluzio abertzalean bozka galerak ekarri dizkio. Baina hori asumitua dute.

Josu Jonen garaia, argipen horretarako, eta PNV konplexurik gabe zertara zihoan erakusteko balio izan zuen. Egun, LG eta geroko 600.000 bozkak ez ditu nahi. 300.000 bozka horietan kokatu nahi du. Bozka kopuru horrek hegemonia eta gestio kuota bera eskaintzen dio, eta kudeatzeko errazagoak dira. Klabe abertzalean jasotako 600.000 bozkak ordea ildo horrekin kudeatzea paper zailean kokatzen du.

– E: Azken urtean kontsultaren gaiarekin gertatutakoa bere apustua zertan datza erakusten du: Kontsultaren legea atzera bota ondoren eta hurrengo egunetan Zapateroren aurrekontuak babestu zituen. Zentzu horretan halere, egiten duen apustuarekiko proportzionala den presioa eta kritika jaso gabe jarraitzen du, eta eroso ez egon arren, operazio politikoa burutzeko baldintzak aurkitzen ditu.

Kontsultaren gaiaz landa, futbol selekzioarena, hezkuntza ereduaren gaia, fiskalitatea, trenarena eta abar aipatzen dira.

– H: PNVrekiko Erakundeak egiten duen irakurketan adostasun osoa erakusten du (etengabe Erakundearen azalpenen aurrean “bai, bai, bai” horretaz landa) bere irakurketan. PNV PSOE-PSEekin dena adostua duenaren irakurketa egiten du. Ibarretxe bera kentzeko erabakiaz aritzen da. Kontsultarekin gertatutakoa horren erakusle modura kokatzen du.

– H: Ibarretxe beraren jarrera kritikatzan du. Beraiek erabakia hartuta dute: Emaiza elektoralak direnak direla ere ez dute berriz PNVrekin gobernatu. Oposizioara joko dute. Zentzu horretan Erakundeari Hauteskundeetan nor irabaziko duen galdetzen diote. Erakundearen ustez PNVek berriz irabaziko duela esaten zaie. PSEren irabazteko aukerak sobredimentsionatu direla iruditzen zaigula esaten zaie, aurretik ere PSE PNVren gainetik geratu izan dela, halere espekulazio horietan ez dugula sartu nahi esaten zaie inora ez garamatzatela ikusirik.

– H: Beraien ustez ere PNVek irabaziko dituela. Argi ikusten dutela hori. Eta gero gerokoak. Eusko Alkartasuna azken hamar urtetan (98ko ekimenetik)

– E: Azken hamar urtetan bi uretan ibili nahian ikusi ditugu. Alde batetik espainolismoa eta Euskal Herriaren

zatiketa eragin duen partiziotik etorritako Lakuako gobernuan PNVrekin batera. Bide antzu hori urratzearekin batera OHDren sinaduran, NAEZ dinamikan eta prozesuan Ezker Abertzalearekiko garatutako

harremanekin batera egin da.

– E: Ez dugu ulertzen PNVrekiko egiten duzuen irakurketa kritiko eta zorrotza orain egitea, PNVrekin gobernuan 4 urte egon ondoren kritikarik egin gabe. Kontsultarekin gertatutakoa gertatuta gobernutik ateratzeko aukera aztertu ote zuten galdetzen zaie. Orokorrean PNVtik oso gertu eta dena bere edo Ibarretxeren itzalpean egiteko joera aipatzen zaie.

– H: Aztertu zutela baina erabaki “elektoralista” modura ikusiko zela eta baztertu zuten. Beraien barne oreka zaila denez ere, horrelako urratsak emateko zailtasunak dituzte.

– E: Ertzantzarekin eta Hautetsi lapurrekin ere duten erantzukizuna helarazten zaie. Bai eta Torturaren gaiarekin edo presoekin erakusten duten determinazio eza. Hostoak Ertzantzaren zenbait jarrera salatu dituela aipatzen du, bai torturaren aurrean jarrera irmoa erakutsi izan dutela Giza Eskubideen batzordean. Presoen gaia askotan aipatzen du bigarren mintzakideak, gaiarekin zintzoki kontzientziatuta ikusten zaio.

– E: Alderdi modura determinazio eta joera argi baten aldeko jarrera irmoa ez dutela erakusten esaten zaie.

Horren lekuko Hauteskunde Autonomikoetan gertatu dena: aurrera begira urratsak emateko indar eta determinazio handirik ez dute erakutsi. Bitan apurtu dute akordioa eta aukera on bat pasatzen utzi dugu. Erakundeak ere prest zegoen ekarpena egiteko eta azkenean ez da ezertan gauzatu. Gerora ezin daitezke horrelakorik egon.

– H: Hauteskunde autonomikoetan gertatu denarekin autokritika egiten dute, onartzen dute ez dutela zuzen

jokatu eta etengabe haiek beraien etxea nola duten eta barne orekari erantzun beharra jartzen dute arrazoi modura. Beraien egoeraren berri ematen zaio Erakundeari. Sektore ofiziala eta ez ofizialren arteko borroka zertan dago eta indarrak nola daude azaltzen dute. Gehiengo bat ejekutibarekin bat egiten du eta bere irakurketarekin (PNVrekiko kritika eta urrunketaren beharra), epe motz ertainean Gipuzkoan Gldsrekin

duten arazoa konpondutzat ikusten dute. Izan ere oinarria beraiekin dago eta hurrengo kongresu batean lagun hori kanpoan geratzen da. Haatik gaur gaurkoz arazo bat suposatzen du bere posizio eta jarrera.

Huateskundeetan Ezker Abertzalearekin egin nahi zutena egiteko aukerarik ez zuten. Koalizio batetik bestera denbora gutxian pasa eta barne kohesiorik gabe. Apustu handiegia zen ikusita nola dauden. Hori konponduko dutela eta aurrera begira egin beharreko bidea zein den argi ikusten dutela. Indar independentisten artikulazio eta bateratzean egin beharreko apustuan bakoitzaren etxea nola dagoen ezin daitekeela arazo bat izan esaten die Erakundeak.

– E: Era berean hauteskunde autonomikoak dinamika baten hasiera izan zitekeela ukatu gabe, gure ustez potentzialitate handia zuen:

- Indar autodeterministen eszenifikazio erreal batean.
- Hauteskunde autonomikoak erakutsiko duten argazki politiko irreal aputzeko
- Emaitzak PNVtik gertu geratuz PNV ordezkatzeko apustua erreal dela erakutsi.
- PNVren operazio politiko neostatutarioa egin ezina egin edo asko baldintzatzea.
- H: Bestetik “gertatzen diren gauzak” eufemismoa erabiliz Azpeitiako ekintzaz aritzen dira zehaztu gabe. Horrek baldintzak zailtzen ditu.
- E: Erakundeak ulertzen du bere ildo armatuaren zenbait ekintza arrazoi eta aitzakia izan daitezkeela dinamika batzuk martxan jartzeko. Baina egia da gure herriaz egiten dugun argazkian ados bagaude eta nora eraman behar dugun horretan ere ados bagaude helburu horietara iristeko tartean elkar eman ditzakegun urratsotaz aritu behar garela. Horretan dagoela gakoa.

Aurrera begira:

- E: Erakundeak aurreko prozesuaren inguruko irakurketa helarazten die. Zentzu horretan beste prozesu baten perspektiba non kokatzen duen azaltzen zaie ere. Era berean prozesuaren aldagaien inguruko hausnarketa helarazten zaie eta aurrera begira burutu beharreko prozesu demokratiko eta negoziazio prozesuaren zutabeak nola kokatzen dituen azaltzen du.
- Nazioarteko baldintzak.
- Prozesuaren aktibo nagusia zein den: Indar independentisten artikulazioa eta prozesuari ezartzen dizkioten minimoak.
- Estatuaren aldagaia aztertu.
- PNV: Beto gehiagorik ez, ordezkatzea helburu. Eta ahalik eta gehien ahultzea indar korrelazioaren ordezkapen modura.
- Borroka armatuaren papera eta Erakundeak Estatuarekin negoziatu beharrekoa.
- E: Zentzu horretan Erakundeak uste du aldaketa politikoa eta prozesu demokratiko bat eman dadin zein negoziaketa prozesu bat era positiboan askatzeko ezinbestekoa dela indar korrelazioa aldatzea. Horretarako indar autodeterministen batera-jotze bat eta estrategia independentitsa bat eraikitzea ezinbestekoa da. Helburu estrategikoa PNV ordezkatzea izan behar du, eta indar horretatik prozesu politiko baten lidergoa egin ahal izatea.
- E: Erakundeak egin beharreko ekarri politikoa egingo dio horri. Baina era berean dinamika armatua ezin daiteke aitzaki errekkurrentean bilakatu.
- E: Erakundeak ez du 98 dinamikaren filosofian kokatu nahi urratsen kronograma: “Nik urrats hau eta zuk egin nahi ez duzun urrats hau eman, nik tregua eta zuk beste hau”. Estrategia ezin daiteke indar abertzaleen arteko kromo aldaketa batean oinarritu. Erritmoen arteko eztabaidan ezin gara berriz zangopilatu. Indar eta eragile bakoitzak ikusi behar du irakurketa eta helburu amankomun horiek behin adostuta horiek gauzatzeko bidean non topatzen garen eta zertan ez gauden ados.
- Erakundea negoziazio prozesutik bi urteetara, estatuaren apustu errepresiboa ikusirik, eta indar abertzaleak oraindik artikulatzeko dauden honetan ez du inolako baldintzarik ikusten erantzun eta konfrontazio armatua konfrontazio demokratikoarengatik ordezkatzeko. Hori beste estadio batean ikusiko luke, asko dago egiteko horra iristeko.
- H: Erakundeak esandakoarekin adostasuna adierazten dute. Erakundea ulertzen dute erabat ildo armatua

baztertzeke egiten zaizkion interpelazioaren karira. Era berean beraiek arestiko indar bateratze estrategia horretan eragin nahi dute. Hor ikusten dute herri bezala aurrera egiteko aukera bakarra. Zentzu horretan ondo ikustendute erritmoen gaiarekin planteatzen dena, baina egia da ere “gertatzen diren zenbait gauza” ez dutela bide hori errazten (Erakundearen ekintzetaz ari direla ulertzen dugu).

Hauteskunde Europearrak:

- E: Ezker Abertzalea eta Hostoa elkar joatearen aukerak autonomikoetan dohai batzuk zituen europearretan ez dituen, ez dute panorama politikoa baldintzatzeko hainbesteko gaitasunik. Baina Hauteskunde europearrak beste dohai batzuk dituzte horrelako apustu batean:
- Herri bezala aurkeztea zazpi herrialdeetan, nahiz eta zerrenda ezberdinekin izan.
- Lehenengo indarra izateko aukerak suposatuko lukeen urratsa:
- Hauteskunde autonomikoek erakutsitako argazki irreal erakusgai utziz.
- PNVren hegemonia suplantatzeko aukera erakutsi
- Abertzalegoan erreferentzia eta ilusioa sortuz aurrera begirako ildo despejaten lagunduko zuelarik.
- Hostoak irakurketarekin bat egiten du. Bere ustez aukera polita da. Halere aipatzen dute beraiek azkar erabaki behar dutela ea ERCrekin doazen hala ez. Era berean CIUK PNVri elkar berrituz ez direla joango erabakita omen duela aipatzen du.
- E: Formari dagokionez Erakundea ez dela sartuko aipatzen da. Hori Ezker Abertzaleak eta Hostoak erabaki behar dutela. Guretzat alde batetik alternatiba politiko hori zentzu autodeterminista batetik haratago herri bezalako alternatiba politiko-sozial bat ere eskaini behar duela iruditzen zaigula aipatzen zaio. Ilusioa ere aldaketa horrek eduki dezakeen eskaintza eta eduki sozialean oinarritu behar dela deritzogu. Era berean formari dagokionez gure ustez sektore ezberdinak (langileak, laborariak, ikasleak, kirolariak, kultur mindukoak...) osatuko luketen alternatiba politiko programatiko batean oinarritu zitezkeela eta

ondoren Hostoa eta Ezker Abertzaleak horrekiko babesak erakutsi baina aukerak kolore haina dagoela aipatzen da.

- E: Erakundeak Nafarroaren gaia eta zehazki Nabairen gaia ateratzen du. Bere irakurketa zein den eta Hostoak bat egin edo zein irakurketa egiten duen interesa adierazten du Erakundeak. Gure ustez:
- Nabai PNVren troya zaldia da Nafarroan. Agian ez du bere izenaren inguruan kapitalizatzen baina bere ildoak da nagusitzen dena.

- Era berean, Ezker Abertzalea eta gero, garai batean Hostoa zen indar abertzale nagusia Nafarroan. Egun ordea, Hostoarentzat apustu hori “pan para hoy y hambre...” batean bilakatu dela iruditzen zaigu (H: “bai, bai, bai”). Izan ere alde batetik Aralarrek kapitalizatzen duelako eta bestetik ordezkariak zalantzarokoa eta benetako indar erreala bat ez duten zenbait independente eta Batzarreko jendeak barne mailan indar handia duelako.

- Erakundeak era berean kezkatuta agertzen da Aralarren diskurtsoarekin.

- Alde batetik gatazkaren konponbidearen gakoak non kokatzen dituen eta eskema horretan Erakundeak jokatu beharreko paperean PNVren posizio bera gailentzen duelako sarri. Era berean Ezker Abertzalearekiko darabilten beligerantzia bere obsesio politikoa zein den erakusten du.

- Bestetik UPN-PPTik egin den diskurtso navarrista-espainolaren itzalpean erroto nahi duen nabarrita-basquita joera hori kontraesanez beteta eta herri bezala inolako ekarpenik egiten ez duela iruditzen zaigu, ez bada zatiketa erroto eta bere indar eremuak babestu nahian burutzen den estrategia politikotik etortzen.

- Era berean Nabairen alternatiba politikoa zertan oinarritzen den aztertzeke garaian kezka sortzen da. Ikuspegi instituzional hutsetik, Euskal Herriaren zatiketa onartu eta inolako aldaketarik gabe ikuspegi baskista eta progre batetik instituzioak kudeatzeko apustu batean ikusten dugu.

- H: “Eso hay que desmontarlo”. Bat egiten dute Ek esandakoarekin. Aralar bai Nafarroa Garaian zein Baskongadetan PNVren gonapean ikusten dugu. Arabako batzarretan, Parlamentuko komisiotan eta pasilloetan beraien artean dagoen sintonia eta feelinga nabaria da. Era berean EITBen ematen zaion bonboa dago. Afera da, Nafarroa Bai apurtzen duenak... ordainduko duela.

- E: Hauteskunde europarretan alternatiba politikoa osatzea da Nabai ordezkatzeko era onena. Nafarroan alternatiba autodeterminista izan behar da, Nabai kontrako norabide politikoa batetik doalako, Nafarroako autonomistetan bilakatzen ari dira.

- E: Hauteskunde Europarretan aipatzen ari den era horretan aurkezteko aukera badago Erakundeak ere

bere ekarpena egingo du aipatzen diren presioak ahalik eta txikiak izan daitezkeen, baina argi izanda presio horienpean lan egitera ohitzera beharrezkoa izango dela. Konfrontazio demokratiko batek hori ere ekarriko du. Hauteskundeak dira ere aliantza edo estrategia independentista batek eduki dezakeen indarra eta eragiteko gaitasuna neurtzeko unea. Aliantza horren enborra bi adar ditu: Autodeterminazioa bai, estatuto berriak ez.

- Hostoak ez du inongo momentuan Erakundearen interpelatzen, ez dio ezta ere hauteskunde europarrei begira inongo eskaerarik egiten tregua bat eskatuz. Giroa sosegatua eta eztabaida irekia eta lasaia izan arren Erakundeari hori ez eskatzearen arrazoi bakarra horretarako kemenik ez edukitzea da, kontutan hartuta ekintzetaz aritzeko “gertatzen diren gauzak” eta antzeko eufemismoak erabiltzen zizutela. Beste: Trena: Bilkuraren amaieran Trenaren gaia aipatzen zaie. Erakundeak zehazki Hostoak trenari buruz zer

pentsetan duen jakin nahi du zuzenean. Izan ere badakigu herri askotako Hostoaren lagunak eta hautetsiak aurka

daudela baina era berean zaila dela Hostoaren aldetik gai horren inguruan jarrera finko bat argitzen duen deklaraziorik entzutea.

Erakundearen irakurketa azkar bat egiten da:

- Trena Espainiako interesak eta elite enpresarialaren interesen alde eginiko proiektua da. Lurralde antolaketa interes batzuen irizpideetan jartzeko proiektua da.

- Trena giza garapen eredu neoliberal eta kapitalista basatiaren paradigma da. Diru publikoa makro enpresetara bideratzeko proiektua da.

- Propagandaren bidez eta modernitatearen izenean proiektuaren inguruko eztabaida ukatua dago.

- Proiektu hori Euskal Herriaren txikizioa dakar. Ez dago munduan herrialde bat Euskal Herriaren orografia

izanik abiadura handiko tren bat duenik.

Hostoak:

- Hasieratik presidentek interbenitzen du “ni beti kritikoa izan naiz horrekin”. Besteak “gu H-a proposatu genuen Iruña ere batzeko. Eta merkantziak garraia zitzan ekarpena egin genuen hori irabaziz”.

- Ez dute posoziorik gaiarekin. Ez daude aurka ofizialki baina ez dute proiektuaren defentsan kokatu nahi.

- Moratoriaren aukera ez lukete gaizki ikusiko.

Beste: Hostoaren jarrera bilkuran.

- Bilkura segurtasun aldetik aipatzekorik gabe burutzen da. Beraien aldetik bi ordezkari azaltzen dira.

Bietako bat aurretik Erakundearekin bilduta egon da (98, 05). Beraiek bilkurara lehen mailako ordezkariak bat bidaltzen dute. Ez dute ekarpen edo interpelazio zuzenik egiten. Ez diote Erakundeari bere ildo armatuaren inongo desadostasunik azaltzen.

- Hostoa nahiko burumakur azaltzen da. Bileraren Iniziatiba Erakundearen ordezkartzaren esku utziz erabat.
- Hitz hartutako denbora kontuan hartuko bagenu, interbentzio denboraren 3/4ak ggb Erakundearena da.
- Erakundearen irakurketaren eta hausnarketa guztien aurrean "bai, bai, bai" batekin bere adostasuna azaltzen dute.
- Txikitasuna, ahulezia, determinazio eza; eta zintzotasuna zein borondate ona islatu zuten Hostoako ordezkariak.

1

Nota previa: Esta acta se ha hecho a tres días de la reunión, tomando como base el orden del día llevado por la Organización a la reunión y teniendo en cuenta que no se recogió acta en la reunión. Por tanto, en cierto modo su contenido no es completo.

Antecedentes:

- La organización mantuvo un hilo de contacto con Hosto antes y hasta la iniciativa del 98.
- Desde entonces ha habido un solo contacto directo, a principios del 2005. Entonces se celebró una reunión. Estuvieron el presidente Garaiko y el segundo representante actual. Tras la reunión no se dio continuación a esa relación, después de que Hosto respondiera por carta a algunas críticas públicas hechas a la Organización.

Introducción:

- La reunión se ha celebrado en un restaurante de Euskal Herria. La reunión se desarrolla en un ambiente tranquilo y no llega a 4 horas. La reunión se realiza en euskera, aunque un interlocutor de Hosto hablara en castellano (en euskera lo entiende).
- Se expresan las razones para recuperar el contacto por parte de Hosto. No muy claramente. Lo sitúan dentro de la relación que existía con la Izquierda abertzale en las elecciones autonómicas. Incluso desde la preocupación que crea la situación que vive euskal herria desde una perspectiva independentista: el españolismo cada vez más arraigado, el soberanismo cada vez más diluido y dispersado con la operación que quiere llevar a cabo el PNV.
- Por parte de la Organización se expresa el interés a la reunión:

Primero que queríamos escuchar las razones para retomar el contacto por su parte. Aún así se valora que es una actitud interesante.

Para la Organización Hosto –estando en el ámbito de promotores que tienen en cuenta Euskal Herria- lo sitúa en prioridad en su ámbito de contactos.

La Organización quería recoger de primera mano la reflexión política de Hosto en esta reunión y ofrecerle, del mismo modo, la de la Organización. La Organización saca los temas que querría analizar en la reunión; la situación de Euskal Herria, la posición del PNV, la trayectoria de Ea de los últimos 10 años, las Elecciones autonómicas, las Elecciones europeas y algunos otros.

Análisis de la situación de Euskal Herria:

- Por parte de Hosto se hace un rápido análisis de la situación. En esta exposición dice que los que queremos llevar el independentismo o a Euskal Herria a otro escenario nos encontramos en condiciones cada vez más difíciles: la ilegalización de la Izquierda Abertzale, la influencia que eso tendrá en el parlamento de Vitoria, las fuerzas dispersadas, el pacto que quiere llevar a cabo el PNV con el españolismo...

- La Organización expresa su acuerdo con el análisis que ofrece en ese sentido. Existiendo las condiciones políticas que existen, muestran muy difuminada en la fotografía política, la dispersión que hoy sufren las fuerzas de autodeterminación y en consecuencia, causan el cambio de facto de la correlación de fuerzas. Esa fotografía aparece condicionada por esa variable pero también:

Porque estamos en condiciones de producir un cambio político en una o otra clave, Euskal Herria en crisis.

La apuesta del Estado: en la posición a favor de hacer una reforma que no tendrá en cuenta a Euskal Herria, pues unido a eso nos aparece la apuesta represiva.

La posición del PNV: por la apuesta que hace a limitar las opciones políticas a una reforma.

- E: Pensamos que el contacto y acción unitaria que están llevando a cabo los abertzales en LBNZ es un ejemplo político. En ese sentido Euskal Herria Bai nos parece un paso muy positivo, porque ha llegado a ser el instrumento para demostrar la verdadera fuera del ámbito abertzale.

Posición de PNV:

- E: Siendo muy grande el potencial que tiene la situación política, también los riesgos nos aparecen proporcionales a ése, sobre todo por la apuesta que quiere hacer el PNV.

- E: Hacer un nuevo estatuto impone la opción de hacer perdurar el conflicto.

- E: No hay un PNV de Egibar, Ibarretxe, Imaz o Urkullu. PNV es solo uno, aunque es innegable el conflicto que han sufrido en la última década las dos tendencias históricas del PNV. Ese conflicto se convirtió en una crisis, que cruzó las líneas de lo público y eso les ha causado un gran daño. Hoy han conseguido el objetivo de no pasar la crisis o las tensiones internas al ámbito público. Desde una perspectiva histórica, PNV siempre deja a un lado los intereses de Euskal Herria destacando los que tiene como partido.

- E: Ante la posición y apuesta del PNV:

Ante la ciaboga política que está llevando a cabo, por parte de las alternativas abertzales se debe apostar por que pierda votos desde la proa.

Como consecuencia de una posición firme y de alinear las fuerzas ante un nuevo estatuto, se debe producir un movimiento para evitar esa apuesta o que nazca como un débil remiendo a corto plazo.

Desde un planteamiento estratégico, como pueblo hay que apostar por romper la hegemonía del PNV y representarlo en la interlocución para con el estado.

PNV, después de 30 años, si por repetir el ciclo, apuesta por eternizar el conflicto, si sitúa a este pueblo en el paso de un nuevo estatuto, este pueblo no aceptará esa nueva traición. ETA renovará la posición respecto al PNV y la Organización responderá con la responsabilidad que tiene en reemprender el conflicto.

- E: en los contactos trilaterales mantenidos en el Proceso de Negociación mostraron más obstáculos y miedos que los representantes del PSOE ante las propuestas de llevar a Euskal Herria a otro marco.

- E: en la involución abertzale llevada a cabo en los últimos años le ha traído pérdida de votos. Pero eso lo tienen asumido. La época de Josu Jon, para esa aclaración, sirvió para demostrar a qué iba PNV sin complejos. Hoy, no quiere LG ni 600.000 votos futuros. Quiere situarse en esos 300.000 votos. Ese número de votos le ofrece la misma cuota de gestión y hegemonía, y son más fáciles de gestionar. Lo sitúa en un difícil papel gestionar con esa dirección 600.000 votos recogidos en clave abertzale.

- E: lo ocurrido con el tema de la consulta en el último año demuestra en qué consiste su apuesta: apoyó los presupuestos de Zapatero los días siguientes y después de echar atrás la ley de consulta. En ese sentido, sin embargo, sigue sin recibir crítica ni presión proporcional a la apuesta que hace, y a pesar de no estar cómodo, encuentra las condiciones para llevar a cabo la operación política. Además del tema de la consulta, se mencionan el de la selección de fútbol, el tema del modelo educativo, la fiscalidad, el del tren, etc.

- H: en su lectura muestra acuerdo absoluto en la lectura que hace la Organización respecto al PNV (además de ese “si, si, si” ante las explicaciones de la Organización continuamente). Hace una lectura de que PNV lo tiene todo acordado con PSOE-PSE. Se habla de la decisión de quitar a Ibarretxe. Sitúa lo ocurrido con la consulta como demostrativo de eso.

- H: Critica la postura de Ibarretxe. Ellos tienen adoptada la decisión: que aunque los resultados electorales son los que son, no gobernarán con el PNV. Irán a la oposición. En ese sentido, preguntan a la Organización quién ganará en las Elecciones. Se les dice que en opinión de la Organización PNV ganará de nuevo. Se les dice que nos parece que se han sobredimensionado las opciones para ganar del PSE, que también antes PSE ha quedado por encima del PNV, sin embargo, viendo que no vamos a llegar a ningún sitio, se les dice que no queremos entrar en esas especulaciones.

- H: En su opinión que también ganará PNV. Eso lo ven claramente. Y luego ya se verá.

Eusko Alkartasuna en los últimos diez años (desde la iniciativa del 98)

- E: en los últimos diez años los hemos visto queriendo caminar sobre dos aguas. Por un lado, junto al PNV en el gobierno de Lakua derivado de la partición que ha causado la división de Euskal Herria y el españolismo. Además de romper esa vía estéril, se ha unido a las relaciones llevadas a cabo para con la Izquierda Abertzale en la firma OHD, en la dinámica NAEZ y en el proceso.

- E: no entendemos que ahora hagáis una lectura rigurosa y crítica respecto al PNV, sin hacer ninguna crítica después de estar 4 años en el gobierno con el PNV. Se les pregunta si analizaron la opción de salir del gobierno después de lo ocurrido con la consulta. En general, se les menciona su tendencia de actuar muy cerca del PNV o a la sombra de Ibarretxe.

- H: que lo analizaron pero que lo dejaron a un lado ya que se vería como decisión “electoralista”. Dado que es difícil su equilibrio interno, tienen dificultades para dar pasos de ese tipo.

- E: se les hace llegar la responsabilidad que tienen también con la Ertzantza y con los robos de Electos. Incluso la falta de determinación que demuestran con los presos y con el tema de la Tortura. Hosto dice que ha denunciado algunas actitudes de la Ertzantza, incluso que han demostrado una actitud firme ante la tortura en la comisión de Derechos Humanos. El segundo interlocutor menciona muchas veces el tema de los presos, se le ve concienciado sinceramente con el tema.

- E: Se les dice que no muestran una actitud firme a favor de una determinación y tendencia clara como partido. Testimonio de eso, lo que ha ocurrido en las Elecciones Autonómicas: no han mostrado una gran determinación y fuerza para dar pasos de cara al futuro. Han roto el acuerdo dos veces y hemos dejado pasar una buena oportunidad. La Organización también estaba dispuesta a hacer su

aportación y al final no se ha plasmado en nada. Después puede que no exista algo así.

- H: Hacen autocrítica con lo que ha ocurrido en las elecciones autonómicas, reconocen que no han actuado correctamente y ellos continuamente ponen como motivo cómo tienen su casa y la necesidad de responder al equilibrio interno. Informan a la Organización de su situación. Explican cómo están las fuerzas y cómo está la lucha entre el sector oficial y no oficial. Una mayoría se une a la ejecutiva y a su lectura (la necesidad de alejamiento y crítica respecto al PNV), ven solucionado el problema que tienen con Glds en Guipuzcoa a corto medio plazo. De hecho la base está con ellos y en un congreso posterior esa persona se queda fuera. Sin embargo, a día de hoy su actitud y posición supone un problema.

En las elecciones no tuvieron la oportunidad de hacer lo que querían hacer con la Izquierda Abertzale. Pasando en poco tiempo de una coalición a otra y sin cohesión interna. Visto que era una apuesta demasiado grande cómo están. Que eso lo solucionarán y que ven claramente cuál es el camino que hay que seguir de cara al futuro. La Organización les dice que no puede ser un problema cómo está la casa de cada uno en la apuesta que hay que hacer en la unión y articulación de las fuerzas independentistas.

- E: del mismo modo, sin negar que las elecciones autonómicas pueden ser el inicio de una dinámica, en nuestra opinión tenían una gran potencialidad:

- En una escenificación real de las fuerzas autodeterministas.
- Para romper la fotografía política irreal que mostrarán las elecciones autonómicas.
- Quedando los resultados cerca del PNV, demostrar que es real la apuesta para sustituir al PNV.
- Hacer irrealizable la operación política neoestatutaria del PNV o condicionarla mucho.

-H: por otro lado, sin concretar, se habla de la acción de Azpeitia utilizando el eufemismo “cosas que pasan”. Que eso dificulta las condiciones.

- E: la Organización entiende que puede haber motivo y excusa de algunas acciones de su dirección armada para poner en marcha algunas dinámicas. Pero la verdad es que si estamos de acuerdo en la fotografía que hacemos de nuestro pueblo y si también estamos de acuerdo a dónde tenemos que llevarlo, tenemos que hablar de los pasos que podemos dar para llegar a esos objetivos. En eso está la clave.

De cara al futuro:

- E: La Organización les hace llegar la lectura sobre el proceso anterior. En ese sentido también se les dice dónde sitúa la perspectiva de otro proceso. Del mismo modo se les hace llegar la reflexión sobre las variables del proceso y explica cómo sitúa los pilares del proceso democrático y del proceso de negociación que hay que llevar a cabo de cara al futuro.

condiciones internacionales.

Cuál es el principal activo del proceso: la articulación de las fuerzas independentistas y los mínimos que se imponen al proceso.

Analizar la variable del Estado.

PNV: no más veto, sustituir como objetivo. Y debilitar lo más posible como representación de correlación de fuerzas.

El papel de la lucha armada y lo que hay que negociar con el estado por parte de la Organización.

- E: en ese sentido, la organización cree que es necesario cambiar la correlación de fuerzas para que se produzca el cambio político y un proceso democrático y solucionar de un modo positivo un proceso de negociación. Para eso es necesario construir una estrategia independentista y una actuación unitaria de las fuerzas autodeterministas. El objetivo estratégico tiene que ser sustituir al PNV, y desde esa fuerza poder llevar el liderazgo de un proceso político.

- E: la Organización hará a eso la aportación que tiene que hacer. Pero del mismo modo la dinámica armada no se puede convertir en una excusa recurrente.

- E: La Organización no quiere situar el cronograma de los pasos en la filosofía de la dinámica del 98: “Yo este paso y tu da este paso que no quieres dar, yo tregua y tu esto otro”. La estrategia no se puede basar en un cambio de cromos entre fuerzas abertzales. No podemos tropezarnos de nuevo en el debate entre ritmos. Cada fuerza y promotor tiene que ver dónde nos encontramos y dónde no estamos de acuerdo para plasmar esas lecturas y objetivos comunes una vez acordados.

- La Organización, a dos años del proceso de negociación, vista la apuesta represiva del estado, y mientras están aún por articular las fuerzas abertzales, no ve ningún tipo de condición para responder y sustituir la confrontación armada por la confrontación democrática. Eso se vería en otro estadio, hay mucho que hacer para llegar a eso.

- H: expresan acuerdo con lo dicho por la Organización. Entienden

totalmente a la Organización al hilo de la interpelación que se le hace para dejar a un lado la dirección armada. Del mismo modo ellos

7

quieren influir en esa estrategia de unión de fuerzas de antes. Ahí ven la única opción para seguir adelante como pueblo. En ese sentido, ven bien lo que se plantea con el tema de los ritmos, pero la verdad es que “algunas cosas que ocurren” no facilitan esa dirección (entendemos que están hablando de las acciones de la Organización).

Elecciones europeas:

- E: la opción de ir juntos la Izquierda abertzale y Hosto en las Autonómicas tenía algunas cualidades que no tiene en las europeas, no tienen tanta capacidad para condicionar el panorama político. Pero las elecciones europeas tienen otras cualidades en una apuesta de ese tipo:

Presentarse como pueblo en las siete provincias, a pesar de ser con diferentes listas.

El paso que supondría la opción de ser la primera fuerza:

Dejando como muestra la fotografía irreal mostrada en las elecciones autonómicas.

Mostrar la opción de suplantarse la hegemonía del PNV.

Creando la ilusión y la referencia en el ámbito abertzale que ayudaría a despejar la dirección de cara al futuro.

- Hosto está de acuerdo con la lectura. En su opinión es una bonita oportunidad. Sin embargo dicen que ellos tienen que decidir rápido si van o no con ERC. Del mismo modo, CIU dice que al parecer tienen decidido que no irán de nuevo con el PNV.

- E: Respecto a la forma se dice que la Organización no entrará. Que eso tienen que decidirlo la Izquierda Abertzale y Hosto. Se le dice que a nosotros, por una parte, nos parece que esa alternativa política tiene que ofrecer también una alternativa político-social como pueblo más allá de un sentido autodeterminista. La ilusión también pensamos que tiene que basarse en la oferta y contenido social que puede tener ese cambio. Del mismo modo, respecto a la forma se dice que, en nuestra opinión, puede basarse en una alternativa política programática que formarían diferentes sectores (trabajadores, agricultores, estudiantes, deportistas, del mundo cultural...) y después que Hosto y la Izquierda abertzale muestren su apoyo pero que hay tantas opciones como colores.

- E: la Organización saca el tema de Navarra y concretamente el tema de NaBai. La Organización dice cuál es su lectura y si Hosto está de acuerdo o cual es su lectura. En nuestra opinión:

Nabai es el caballo de Troya del PNV en Navarra. Quizá no

capitaliza en su nombre pero su dirección es la que predomina.

8

□ Del mismo modo, después de la Izquierda abertzale, en un tiempo en Navarra la principal fuerza abertzale era Hostoa. Hoy en cambio, nos parece que para Hosto esa apuesta se ha convertido en “pan para hoy y hambre para mañana” (H: “si, si si”). De hecho, porque por un lado Aralar lo capitaliza y, por otro, porque algunos independientes y personas de la Asamblea, que no tienen una verdadera fuerza real y una representación dudosa, tienen una gran fuerza a nivel interno.

□ La Organización, del mismo modo, se muestra preocupada con el discurso de Aralar.

-Por un lado, porque frecuentemente destaca la posición del PNV en el papel que tiene que jugar la Organización en ese esquema y donde sitúa las claves de la solución del conflicto. Del mismo modo, la beligerancia que utilizan respecto a la Izquierda abertzale muestra cuál es su obsesión política.

-Por otro lado, nos parece que esa tendencia navarrita-vasquista que quiere arraigar bajo la sombra del discurso navarrista-españolista que se ha hecho desde UPN-PP, está llena de contradicciones y que no hace ningún tipo de aportación como pueblo, ya que no viene de la estrategia política que se lleva a cabo queriendo proteger sus ámbitos de fuerza y arraigar la división.

-Del mismo modo, surge la preocupación a la hora de analizar en qué se basa la alternativa política de Nabai. Desde el mero planteamiento institucional, lo vemos en una apuesta de aceptar la división de Euskal Herria y de gestionar las instituciones desde un planteamiento vasquista y progre sin ningún tipo de cambio.

- H: “Eso hay que desmontarlo”. Están de acuerdo con lo dicho por E. Vemos a Aralar bajo las faldas del PNV tanto en Navarra Alta como en las Vascongadas. Es evidente el feeling y la sintonía que hay entre ellos en las asambleas de Alava, en las comisiones del Parlamento y en los pasillos. Del mismo modo, está el bombo que se le da en EITB. El asunto es que Nafarroa Bai pagará lo que rompa...

- E: El mejor modo de sustituir a Nabai es formar una alternativa política en las elecciones europeas. En Navarra debe ser una alternativa autodeterminista, porque va por una dirección política opuesta a Nabai, se están convirtiendo en los autonomistas de Navarra.

- E: si hay oportunidad de presentarse de ese modo que se está diciendo en las Elecciones Europeas, la Organización también hará su aportación para que las presiones que se mencionan sean lo más pequeñas posibles, pero teniendo claro que será necesario

acostumbrarse a trabajar bajo esas presiones. Una confrontación

9

democrática también conllevará eso. Las elecciones son también el momento de medir la capacidad de influir y la fuerza que puede tener una estrategia o alianza independentista. El tronco de esa alianza tiene dos ejes: la autodeterminación si, un nuevo estatuto no.

- Hosto no interpela a la Organización en ningún momento, ni hace ningún tipo de petición solicitando una tregua de cara a las elecciones europeas. A pesar de haber un ambiente sosegado y ser un debate abierto y tranquilo, la única razón de no pedir eso a la Organización es no tener valor para eso, teniendo en cuenta que para hablar de las acciones utilizaban eufemismos como “cosas que pasan” y similares.

Otro: EL TREN: al final de la reunión se les menciona el tema del tren. La Organización directamente quiere saber qué piensa concretamente Hosto sobre el tren. De hecho, sabemos que amigos y electos de Hosto de muchos pueblos están en contra pero, del mismo modo, es difícil escuchar por parte de Hosto una declaración que aclare una postura firme sobre ese tema.

Se hace una lectura rápida de la Organización:

- El tren es el proyecto hecho a favor de los intereses de España y de la élite empresarial. Es el proyecto para poner la organización territorial en criterios de algunos intereses.

- El tren es el paradigma del modelo de desarrollo humano neoliberal y capitalista salvaje. Es el proyecto para dirigir dinero público a macro empresas.

- A través de la propaganda y en nombre de la modernidad, el debate sobre el proyecto está negado.

- Ese proyecto conlleva la destrucción de Euskal Herria. No hay una provincia en el mundo que tenga un tren de alta velocidad teniendo la orografía de Euskal Herria.

Hosto:

- Desde el principio el presidente interviene “yo siempre he sido crítico con eso”. Otros “nosotros propusimos H para unir también Pamplona. E hicimos la aportación para que transportara las mercancías ganando eso”.

- No tienen posición con el tema. No están oficialmente en contra pero no quieren situarse en defensa del proyecto.

- La opción de la moratoria no la verían mal.

10

Otros: la postura de Hosto en la reunión.

- La reunión se lleva a cabo sin mencionar cosas por el lado de la seguridad. Por su parte se expresan dos representantes. Uno de los dos ha estado reunido antes con la Organización (98,05). Ellos

envían a un representante de primer nivel a la reunión. No hacen aportación ni interpelación directa. No expresan ningún tipo de desacuerdo de su dirección armada a la Organización.

- Hosto se expresa bastante cabizbajo. Dejando totalmente en manos del representante de la Organización la iniciativa de la reunión. Si tuviéramos en cuenta el tiempo que se ha tomado la palabra, las $\frac{3}{4}$ partes del tiempo de la intervención es de la Organización ggb.

- Ante todas las reflexiones y la lectura de la Organización, expresan su acuerdo con un “sí, sí, sí”.

- Humildad, debilidad, falta de determinación; y los representantes de Hosto reflejaron una buena voluntad y formalidad.